

MUNDUAREN HISTORIA EZ ZEN ERROMAN HASI: EUROZENTRISMOAREN AURKAKO KRITIKA

Euskal curriculumuma sortzeko prozesuaren barnean, munduaren errealitateari buruz azaldu beharko lirakeen irizpideak finkatzen ahalegintzen ari garen honetan, badirudi komenigarria dela gaur egun ikastetxeetan gai horri buruz transmititzen diren edukien eta balioen azterketa txiki bat egitea.

Jakina, egoera ezberdina da ikastetxe batean eta bestean, eta gauzak ezberdin planteatzeko askotariko ahaleginak aipa daitezke. Hortaz, euskal hezkuntzan nagusi den ikuskera ereduaren ildo nagusiak zirriborratuko ditugu jarraian, baita eredu horrek egun dituen mugak gainditzeko bide batzuk ere.

Abiapuntua Euskal Herriko hezkuntzak munduaren errealitatearen gaineko gabezia handiak eta eurozentriztatzen har litekeen ikuspegia dituela egiaztatzen da.

EUROZENTRISMOA

Eurozentrismoa gizadiaren historian eraginik handiena izan duen etnozentrismoaren aldaera da. Hain zuzen ere, “etnozentrismo” deritzo, ustezko kultur nagusitasunean (eta, betiere, botere militarrean) oinarrituta, pentsamolde, mundu ikuskera eta gizadiaren zati txiki batek gainerakoak kontrolpean dituen harremanak teorizatzen modu jakin baten nagusitasunari buruzko teoria horri, ñabardurak baditu ere, eta unearan arabera bada ere. Mendebaldea, modernotasuna, herrialde garatuak, Lehen Mundua, Iparralde, gizarte atlantikoa... Ez da hau kontzeptu horien arteko ezberdintasunak zehazteko parada.

Europa deitu izan den munduko alde honetan dagoen herria garen aldetik, joera etnozentrista horren eragin handia izan dugu eta dugu; oro har, eragin horrek Europa osatzen duten estatuei egin die mesede baina, zeharka bada ere, geuk ere atera dugu etekinik Europak munduaren zati handi baten gainean izan duen kontrolerik.

Gizarteak ikuspegi eurozentrikoan oinarritutako hezkuntza sistemak izatea eta izan izana ez da Euskal Herrian bakarrik gertatzen eta gertatu eta, neurri batean behinik behin, ezin esan daiteke euskal herritarren borondatearen emaitza denik eta izan denik, nahiz eta hemen beste ikuspegi bat lantzen saiatzen diren pertsonak eta taldeak ditugula esan litekeen. Hortaz, txosten honen bitartez egingo dugun kritika Europa osoan ematen den hezkuntzari heda dakioke, herrialdeen arteko aldeak alde.

JAKINTZA ARLOEN ARTEKOTASUNA

Hainbatetan, ikasketak banatzeko interes nabarmena dago instantzia jakin batzuetan, basoa baldintza hobetan ikusten uzten ez digun zehaztasun landatu nahian, eta eurozentrismoa aztertu eta kritikatzeko. Gizarte Zientziei (funtsean, Historiari) dagokien irudipena transmititzen dugu, oharkabean izan arren. Bestetik, neoliberalismoa, globalizazioa, deskokatzea eta bestelako gai batzuk aztertzea Ekonomia arloari dagokiola dirudi. Azkenik, badirudi hizkuntzak, ohiturak, etab. aztertzea Filologiari, Antropologiari eta antzeko jakintza arloei dagokiela.

Aitzitik, eurozentrismoa kritikatzeko, jakintza arlo guztien artean jardun behar dugu, jakintza arloak neutralak direlako ideia interesatua alde batera utziz, eta kontuan hartu beharko genuke hori guztia eurozentrismoa eskolan sartzean, baita immigrazioa, kontsumo arduratsua, aztarna ekologikoa eta beste gai asko ere. Izan ere, horiek guztiak talde txikietan landu beharreko gaiak besterik ez direla dirudi, hala nola, Agenda 21 proiektuaren barruan, eurozentrismoak beste gai batzuekin ia zerikusirik ez bailuen, baina, egiaz, hobeto helduko litzaioke osotara helduz gero.

DAGOENEN BADAJO BESTE AUKERARIK

Aparteko garrantzia du jendeak munduko toki guztietan (funtsean, eurozentrismoa gehien jasan behar izan duten tokietan) menderakuntza fenomeno honi buruz aspaldidanik egin dituen analisietatik edatea. Iparraldetik datozen ekarpen ugariak alde batera utzi gabe, ezta gutxiago ere, munduko beste leku batzuetan egiten diren hausnarketekin bat egiten saiatu behar dugu, gero eta globalizatuago

dagoen mundu honetan, berebiziko garrantzia izan bailezake etorkizun hurbilean gogoeta horien jakitun izateak.

Alde horretatik, interesgarriak dira Hego Ameriketako egindakoak. Independentziaren ondoren, gizarte horietako gutxiengoak bultzatu zuen historia estiloak, aitortu ez zuen arren, historiografia eurozentriko menderatzailearen ohitura txarrak errepikatu zituen eta, ondorioz, ezinezkoa izan da Ameriketako herrien beharrei erantzun dieten hezkuntza sistemak lortzea. Arrazoi bakarra ez dira izan kontinentearen zati handi batean boterea izan duten burgesak eta eliteak, asmo onekoak izan arren, gizarte bakoitzeko ezaugarriak behar bezainbat kontuan hartu eta mundu eurozentrikoaren ikuspegi hori amaiazi ez duten metodoak aplikatu dituzten beste bide batzuk ere baizik. Hezkuntza alorrean aplika litekeen adibide gisa, Evo Moralesek Kollasuyu/Boliviako hauteskundeak estatu horretako gehiengo indigenaren babesari esker irabazi izanak zalantzan jartzen du hala politikari eta militar gutxiengo txikiak herrialdea ezkutatu, baztertu eta kontrolatu duen aldia, nola asmo hobeko esperientziak (Che Guevararen esperientziak) lur horietan bertan porrot egin izanaren arrazoia.

Aldi berean, ezinbestekoa da munduko beste hiru ingurutara ere begiratzea, zalantzarik gabe, bertakoak izango direlako, gainera, etorkizuneko euskal herritar ugariaren familiak. Alde batetik, Asiako herrialde handiek (Indiak, Txinak, eta abarrek) gero eta protagonismo handiagoa izango dute nazioartean, eta iritzi asko entzun dira azkenaldian historia unibertsele errealitate horiek kontuan izan behar dituztela eskatzeko, egun egituraz gutxiagotu egiten direlako eta, ondorioz, haiekin gertatzen dena ulertu ezin dugulako. Esate baterako, leku horietako historia kontatzeko moduan behin eta berriz errepikatu den pertsona bat Gandhi izan da, eskema eurozentrikoaren eragina gehien jasan duenetako bat hain zuzen ere.

Bestalde, Euskal Herria ez da Mediterraneoko herria, baina arabiar eta musulman munduak hain hurbil ditu, barnean ditugu (eta izan ditugu), eta are barnerago izango ditugu etorkizunean. Aldaera horiek immigrazioari buruzko atalean eta beste atal batzuetan ere aztertuko baditugu ere, komeni da gure historia osatu eta berriz irakurtzea, azkenaldian egiten ari garen gisa, talde horiek iraganean ere gure herrian izan duten garrantzia orain gutxira arte uste baino handiagoa izan dela ohartzeko. Izango da gure ibilbide historikoa erazten ahalegintzeaz arduratuko denik, Iruñeko Gaztelu Plazako hilerria suntsituz egin duten bezala.

Azkenik, pentsalari eurozentristek Afrika erremediorik ez duen inorena ez den lurraldea dela eta egin litekeen gauza bakarra, kamaren begiradapetik urrun betiere, baliabideak ahal bezain zuhurkien ustiatzea dela ikusarazi nahi badigute ere, nabarmendu beharra dago munduko leku batean ikusi ikusten dela estatu eredu eta gizarte antolatze eredu "mendebaldetarra" inportatzeak porrot egin duela argi eta garbi: Afrikan. Lehenago edo geroago, aukerak sortuko dira kontinente honetan – interpretazio historikoaren alorrean gauzatu dira jadanik–, eta Afrika dagokion tokian kokatuko dute, Iparraldeko metropolien aldirietako auzo baztertua izan ordez.

Nolanahi ere, ezin ditugu alde batera utzi Aotearoa/Zeelanda Berriko eta Australiako historiari eta kolonizazioari buruzko eztabaidak, latzak direnak zenbaitetan. Bertan, Europako sustrai zuri eta kristaudun gehiengoak bertako erkidegoen kontzientzia handiagoarekin eta batik bat Asiatik datozen etorkin mugimendu berriekin egiten du topo gero eta gehiago.

Etekin handia dugu lortzeko jakinaren gainean bargaude.

INGURUNE FISIKOA

Gizadia ingurune fisiko jakin batean bizi da: Lurrean. Lurraren irudikapena bera abiapuntutzat hartuta, mapa gehien aurkako kritika egin beharra dago, munduaren ikuspegi eurozentrikoan oinarritzen baitira. Horiez gain, alabaina, Petersen aukera dugu eta, areago, Errusian, Txinan, Hegoaldean... oinarritzen diren irudikapenak. Horiek guztiek Europa mundu osoaren aldean zer den erakusten digute.

Europa kontinenteen taldean sartzea bera ere sorkuntza eurozentrikoa da, Europa Eurasiako (edo dena delakoko) penintsula eszentrikoa besterik ez litzatekeelako geografian, munduaren historia idazterakoan izan duen protagonismo historiko inperialarengatik ez balitz. Are gehiago, esan liteke "asmatu" ziren lehenengo kontinenteak Amerika eta Europa izan zirela, elkar elikatu eta, hain zuzen, Europako potentziek Amerika izendatu zutena kolonizatu eta, ondoren, Estatu Batuak (beste kontinente batean mundua kontrolatu eta interpretatzeko eredu berbera sustatu zutenak) sortzearen emaitza izan zirenak. Ondoren, Asia deskribatu zen, Europaren akats gisa bada ere, eta, azkenik,

Afrika eta Ozeania sailkatu ziren kontinente berezizat: bata ezezaguna izan da orain gutxi arte, eta bestea Ozeano Pazifikoko “hondar” uharteak ziren, eztabaidatzeko moduko mugakoak.

GIZADIAREN JATORRIA

Gogoan izan behar da hominizazio prozesua Afrikan jazo zela. Lehen gizakia, zientzialariek bilatzen duten Eva, afrikarra zen antza. Jakina, aurreko atalean azaldu dugunez, kontzeptu hori egiune geografiko hutsa da, eta ez du lotura handirik kontinenteetako egungo gizarte eta kultur egoerarekin baina, hala ere, Afrika eta afrikarrak sistematikoki laidoztatzen dira oraindik ere, azpigarapenaren eta atzerapenaren paradigmatikoki direlakoan.

Orobat, nabarmentzekoak dira elkarren artean urrun dauden jatorrizko giza taldeen (besteak beste, Euskal Herriaren) arteko antzekotasunak eta euren jatorri komuna iradokitzen dituzten ikerlanak, Europa behin eta berriro protagonista bakarra dela errepikatzen dutenei aurre egiten baitiete.

ZIBILIZAZIO KONPLEXUAREN JATORRIA

“Zibilizazio konplexua” diogu, uko egiten diogulako “zibilizazioak” eta “zibilizatu gabeko herriak eta kulturak” aurrez aurre jartzen dituen eskemari, hezkuntza arloak eta unibertsitateak egiten duten bezala; izan ere, sarritan, oharkabean bada ere, mundua ikusi eta antolatzeko moduak lehenengo edo bigarren mailakoak direlako ideia transmititzen da. Horrenbestez, nahiago dugu zibilizazioa kulturarekin parekatu eta, hartara, zibilizazio inuitaz eta greziar zibilizazioaz aritzea.

Nekazaritza iraultzaren, soberakin ekonomikoen, egitura politikoa ezartzearen eta idazkera jaiotzearen ondorioz sortu diren zibilizazioak ditugu zibilizazio konplexutzat.

Bada, komeni da Neolitoko lau gunetako hiru Asian (Mesopotamian, Indus ibaiaren ertzean eta Ibai Horiaren ertzean) eta bestea Ameriketako (Mexikoko Golkoan) egon zirela gogoratzea. Izan ere, eskoletan Mesopotamiako gunea bakarrik aipatzen da, nekazaritza eta abeltzaintza Tigris eta Eufrates ibaien artean bakarrik asmatu bailiran. Hala ere, eztabaidaezina denez gero hainbatek –gure ustez, bidegabeki– “zibilizazio” deitzen duena Europatik kanpo sortu zela, ezin dugu onartu gugandik hurbilen dagoen gunea bakarrik aipatu eta besteez ezer ere ez esatea. Hurrengo 5.000 urteetan, bestalde, ohikoa da Asia, Amerika eta are gutxiago Afrika berriro ere aipatzea.

GIZADIAREN HISTORIA

Nagusi diren hezkuntza sistemak transmititzen digutena sinesten badugu, gizadiaren historia Europan soilik gertatu da: Grezian, Erroman, Germaniako herrietan, Erdi Aroko erresumetan... Ez dakigu ezer Amerikaz, Afrikaz, Asiaz, Egiptori eta Kartagori (betiere, euren eta Europaren arteko harremanari), Alexandro Handiak (europarrak) Asian (Europatik at) egin zituen sarraldiei edo musulmanak Mekatik etorri izanari buruzko aipamenen bat ez bada. Jakina, musulmanak inbaditzaileak dira, eta Alexandro Handia, berriz, zibilizazio eta kultur gizona izan zen. Gutxitan onartzen da, egiaz, musulmanak zibilizazio eta kultur arloko eragile izan zirela Europan, baita Euskal Herrian ere, nahiz eta, era berean, ukaezina den hedakorrek zirela.

Alegia, ez dakigu ezer Amerikan, Indus ibaiaren ertzean eta Txinan sortu ziren zibilizazio adar konplexuei buruz. Zer ikuspegi du euskal ikasleak zibilizazio horiei buruz? Agian, jakingo du zer edo zer, baina inola ere ezin du imajinatu zibilizazio horiek kultur eta zientzia arloan Europakoa baino askoz aurreratuagoak zirenik; ezin du imajinatu Europako Errenazimentuko aurkikuntza nagusiak (iparrorratza, inprenta, bolbora) txinatarren asmakuntzak izan zirenik, ezta, ziur asko, txinatarrek ondoren Amerika deitu dugunera lehenago heldu eta mundua inguratu zutenik; ezin du imajinatu, Erdi Aroan garapen ardatz nagusiren bat balego, arabiar eta txinatar zibilizazioak Indiako Ozeanoan barna lotu zituena izango litzatekeela, ardatz horren aldean, Mediterraneoko merkatarien bidea eta Done Jakue bidea nahiko txikiak diren arren.

TAULA

1421eko otsailaren 2an, Txinak munduko gainerako nazioak txikiagotu zituen. Orduan, Txinako Urteberri egunean, Asia, Arabia, Afrika eta Indiako Ozeano guztiko errege-erreginak eta ordezkariak Pekingo distiraren erdian elkartu ziren, Zhu Di, Zeruko Semea enperadorea omentze aldera. Itsasoetan barrena zehaztasun osoz nabigatzen zen ontzidi itzelak enperadoreari ohore egitera eta hiriburu harresitu handientsu eta misteriotsuaren (Hiri Debekatuaren) inaugurazioaren lekuko izatera eraman zituen errege-erreginak eta mandatariok. 28 estatuburu izan ziren bertan gutxienez, Erromatar Inperio Sakratuko enperadorea, Bizantzioko enperadorea Veneziako doxa eta Ingalaterrako, Frantziako, Espainiako eta Portugalgo errege-erreginak bertan ez baziren ere. Ez zituzten gonbidatu, euren estatu atzeratuak (merezi zuen merkataritza produktu edo ezagutza zientifikorik gabeak) enperadorearen lehentasun eskalan behera zeudelako.

MENZIES, Gavin: *1421. Txinak mundua aurkitu zueneko urtea* (2002).

ERRENAZIMENTUA, “AURKIKUNTZAK” ETA KONKISTAK

XVI. mendetik aurrera, Europak askoz ere ahalmen ekonomiko, zientifiko eta, batik bat, militar handiagoa izan zuen. Errenazimentuak eta hirien eta merkataritzaren hazkundeak erabateko aldaketa ekarri zuten. Jakintza arloan atzeratuta bazegoen ere oraindik ere, zientzia militarren alorrean paregabea zen. Esaterako, Ameriketara iritsi eta su eta gar menderatu zuen; Indiako Ozeanoan sartu eta koloniak sortu zituen Afrikako kostaldeko hainbat tokitan. Getariako Elkano delako bat ospetsu bihurtu zen mundua inguratu zuen lehen europarra izateagatik; hain zuzen ere, orduko potentzien aginduetara eman zion bira munduari. Eta Europa mundua menderatzen hasi zen.

Amerikaren konkistak aparteko arreta merezi du, baita guri dagokigunez. Alexandro Handia bezala, Europa atzeratuta zeuden lurraldeak zibilizatu zituen eragile izan zen. Nabarmentzekoa da aurkikuntzaren inguruko mitoa ere; izan ere, kontuan izan beharra dago egiazko aurkikuntza duela 30.000 urte jazo zela, lehenengo gizakiak Asiako iparraldetik Bering itsasartean (berriro ere, bertan menturatu zen lehenengo europarraren izenekoan) barrena heldu eta kontinentea kolonizatu zutenean. Aro historikoari lotzen bagatzaizkio, berriz, froga ugari daude txinatarrak lehenago iritsi zirela, 1421. urtearen inguruan. Era berean, europar zibilizazioak Amerika aurkitu izanari buruz ari bagara, gogoan izan beharra dago Eskandinaviako herriak kontinente hartan lehenago izan zirela erakusten duten datuak daudela, baita euskal arrantzaleak Kristobal Kolon, Caboto, Cartier, etab. baino lehenago iritsi izan aurretik ere. Horrenbestez, zehatzagoa litzateke 1492. urtean Europako monarkiak Amerika menderatu eta kolonizatzen hasi zirela esatea.

Eskolako historia ofizialak orduan, hain zuzen ere, gainbehera dagoenean aipatzen du lehen aldiz Ameriketako zibilizazioa, “kolonurreko Amerika” izen bidegabeaz: aztekei, maiei eta inkei buruzko zenbait ohar eta kito. Nolanahi ere, herriak katalogatzeko modu hori nahiko maltzurra da, haiekiko sentiberagoa delakoan: gizarte konplexu eta, neurri batean, aurreratuak izan zirela onartzen da gogo txarrez baina, aldi berean, mitiko eta magikoak, irrazionalak, misteriotsuak... izatea leporatzen zaie, europarren arrazionaltasunaren eta zientziaren aldean; izan ere, Europa nagusitzat jotzen zen eta, logikoa denez, gailendu egin zen azkenean.

INDUSTRIA IRAULTZA, KAPITALISMOA ETA ESTATU MODERNOA

Europak Errenazimentuan lortu zuen Txinako zibilizazioarenaren antzeko garapen zientifikoa eta materiala. Industria Iraultzari eta gizartearen, ekonomiaren eta politikaren arloko garapenari esker, berriz, Europak (eta Ameriketako Estatu Batuek) ahalmen izugarria eskuratu zuen. Izan ere, zientzia kapitalismoaren eta estatu nazio sortu berriaren zerbitzura jarri zen orduan. Orduetik aurrera, gaur egun arte, estatu nazio hori gurtu beharreko totem bilakatu da, eta gizartea ia ezin hobeto antolatzeko modutzat hartzen da.

Haren babespean, mundua etengabe kolonizatzen hasi zen. Amerikar zibilizazioa azpiratuta zegoen XVI. mendeaz geroztik, baina kolonizazioa bizkortu zuen. Arabiako, Indiako eta Txinako zibilizazioetan, berriz, su eta gar sartu zen, europar kolonizatzaileek herri atzeratutzat zituzten haietan, lurrin makinaren, elektrizitatearen, telegrafoaren eta beste asmakizun batzuen (esate baterako,

metrailetaren) berri ez zutelako. Hasia zen europar zibilizazioaren nagusitasunaren aroa, kapitalismoaren mozorroaren atzean ezkatututa.

Berrikiago, Mendebaldeko inperialismoek mundua euren artean banatzen amaitu dute, nagusi izateko lehian. Afrikari eta ordura arte potentzien kontrolpetik at zeuden beste lurralde batzuei egokitu zitzaizen orduan. Hala ere, Ameriketako zati handi bat eta, ondoren, Afrikako eta Asiako lurralde batzuk askatu egin ziren neurri batean, egiaz ez bada ere. Ildo horretan, leku ugariako egoera neokolonialismotzat jotzekoa da eta, batzuetan, ustez bertakoak (esaterako, Afrikakoak) diren ahalegin mugatuak ere ikus daitezke, kale zibilizazioen erreferenteak Europan bilatu nahi dituztenak, kontinenteak berezkoa duen hari (landa eremuaren nagusitasunari) prestigioa eman beharra alde batera utzita. Izan ere, orain dela gutxi hasiak gara landakotasuna gizarte atzeratu baten ezaugarria delako irudipena gainditzen, ustezko “modernotasun” eurozentriko kaletarrak eta, azkenaldian, baita “industria ondoko modernotasun” eurozentrikoak ekarritakoa.

EGUNGO MUNDUA

Eskolan munduko historiari buruz ematen den ikuspegia partziala bada, zer ikuskera ematen da egungo munduari buruz? Ñabardurak ñabardura, berbera. Hala ere, ez da harritzekoa, elite eurozentrikoek ez dutelako etsi nahi, eta euren diskurtsoa etengabe egokitzen dutelako, salgarri bihurtu nahian.

Finean, hezkuntza sistema betiereko eurozentrismoaren bertsio modernotzat (edo, badagokio, “postmodernotzat”) inposatu nahi diren ideia berrien gauzatze bat besterik ez da. Nabarmendu dezagun urte gutxitan pentsalari talde mugatu bati eman zaion garrantzia eta entzutea: Sobietar Batasuna erori ostean, Francis Fukuyamari eta *The end of history?* (1989) lanari lehenengo, eta Samuel Huntingtoni (ofizialki, aurrekoaren lehiakideari baina, egiaz, aurrekoaren bertsio zuzen eta areagotuari, munduaren berrikuntzetara egokituago dagoenari) eta *The clash of civilizations* lanari (1993). Hain zuzen, horiek finkatzen dute Iparraldeon bizi garenek ustez mundua ikusten jarraitu nahi dugun modua; alde horretatik, Huntingtonek etsi eta “zibilizazio” deitzen du bestea, baina hiru munduek bat egin ez dutela eta “gizarte atlantikoek islamiar gaizki konfuzianistari” aurre egin behar diotela planteatzen du. Horregatik, ezinbestekoa da azterketa horri ihes egitea, gure herriak askoz aberasgarriagoak eta etorkizun handiagokoak diren gakoetan oinarritutako harremanak sortzeko munduko beste herriekin. Horretarako, esparru ezin hobea da hezkuntza.

Ingurune hurbilean ere topa dezakegu adibiderik Europako potentzien eta munduko gainerako herrien arteko harremanen bilakaera erreala onartu beharri aurre egitea dela-eta: Espainiako trantsizioak Amerikako kolonizazio lazgarria inola ere onartu ez izana, bosgarren mendeurrena ospatu izana, “ama aberriari” buruzko diskurtsoa elikatu izana... Ez da pozgarria inola ere, eta Historia, Literatura... liburuetan ikusten dugu hori. Halaber, kezkarria da Frantziako estatuan “itsasoz haraindiko lurraldeetako memoriari” buruzko eztabaida piztu berri izana, salbuespenak salbuespen, egindako basakeriak onartu beharrean, “frantziar herrikide askok eta askok lurralde atzeratu horietara aurrerapena eta zibilizazioa eramateko ahalegin itzela” nabarmentzea baita proposamena; alde horretatik, gogoan izan beharra dago Aljeriako eta Indotxinako sarraskiak orain gutxi jazo direla, eta Te Ao Mao’hiko (Polinesia “Frantseseko”) proba nuklearrak, oraindik orain.

AKATSAK EZ ERREPIKATZEA

Euskal Herrian bertan ere, ez da sobera geure buruak, asmo onez bada ere, antzeko akatsak errepikatzeak arriskuaz ohartaraztea.

Bidegabea litzateke balizko “euskozentrismo” diskretua eta haren aukerak eurozentrismoak lur osoari ekarri dionarekin alderatzea, noski, baina, hainbat adibideri esker, bat etorriko gara kontu handiz ibili behar dugula zinez berria eta koherentea den zerbait eraikitzerakoan.

Nahiko erraza izan liteke Legazpi eta beste asko historikoki kritikatzeko, gutariko batzuk beste batzuen akatsak errepikatu eta halakoei ahalik eta ospe handiena ematen tematu garen arren; izan ere, urruneko lurralde militarki menderatzen parte hartu zutela-eta, aurkikuntzari buruzko eskemaren aurkako kritikaren barnean sartzen dira.

Elkano, Iradier eta beste batzuk objektiboki aztertzea, oster, konplexuagoa da, aitzindariak, ikertzaileak eta zientzialariak izan zirela aipatzeko joera baitago. Nolanahi ere, kolonizazio nahi berberak bultzatu zituen, inperio berberen aginduetara betiere: esaterako, gasteiztarraz mintzo

garenean, euskal jatorria goraiatu baina Segovian, Historiako Errege Akademiako kide zela hil zela isiltzen da; Gasteizen haren omenean dagoen eskultura batek “¡Viva el Muni por España!” ere dio, kolonizazioaren (oraingo honetan, Afrikakoaren) aldeko apologiaren adierazgarri.

Are konplexuagoa da akats eurozentrikoaren akatsa saihestea Frantzisko Xabierkoa dela eta. Aurrerapen handia da urriaren 12a, Arrazaren Eguna ez ospatzeko eskatzea-eta, baina, agian, maila berean konparatu ezean, eztabaidan jarri beharko genuke abenduaren 3a aukeratu izana euskararen nazioarteko eguntzat, San Frantzisko Xabierkoaren biografia baldarki manipulatzeko bada ere gaur egun –eta espainola izan zela ere asmatu–, Frantzisko Xabierkoak “zibilizazioa” ustez “atzeratuta” zeuden eta “paganoak” ziren lurretara esportatzeko dinamika berean parte hartu zuelako; halere, horrek ez du esan nahi ezbaian jartzen ditugunik bere giza balioak.

Azken batean, lau pertsona horiek akats berbera dute, eurozentrismoaren emaitza izatea, eta euren euskal izaera aldarrikatzeak ez du arazoa konpontzen. Ildo horretan, eurozentrismoaren berezko bi akats errepikatzen dira: behin eta berriro nabarmentzen direnen artean emakumerik ez izatea eta banakako merezimenduak gorestea behin eta berriz balio kolektiboan aldean.

Antzeko zerbait gertatzen da munduan barrena sakabanaturiko euskal diasporaren analisiaz: bost kontinenteetako euskal etheen kopurua ez da nahikoa. Azterketa oso eta kritikoagoa egin behar da, diaspora motak (politikoa, ekonomikoa eta koloniala) bereizi, eta kokatu diren herrien alde zein kontra jardun dutela nabarmendu; jakina, euskal jatorriko pertsona ezezagun askok egin dituzten ekarpen aurrerakoi eta positiboak ere nabarmendu behar dira. Objektiboak baldin bagara, gure “aztarna koloniala” ordaintzeko moduan izango gara eta, horretarako, hobereana etorkizuneko (eta egungo) euskal gizartea kultur anitza izango dela gauza positibotzat onartzea da. Emigratu eta norbere jatorria beste gizarte batera egokitu beharrekina bat egiten saiatzea zer den dakien herriak, izan ere, etorkizuneko euskal herritar izango direnak hartzeko lurralde bihurtzea normala dela ulertu behar du.

ONDORIOAK

Ezin dugu pentsatu euskal ikasleek gizadiaren historiaren eta zibilizazioen berri izango dutenik sakonki baina, gutxienez,

1. Europako zibilizazioaren historia eta gizadiaren historia bereizi behar ditugu;
2. Europako zibilizazioa gainerakoei berez gailentzen zaielako ideia desmitifikatu behar dugu, bilakaeraren adar bat (XVI. mendera arte, gainerakoak baino atzeratuagoa eta, gizarte zientzien edo kulturaren alorrean ez izan arren –alderdi horren eskala egingo balitz, estaturik gabeko giza taldeak izango lirake nagusi–, ekonomiaren, teknikaren eta zientziaren alorrean nabarmenki nagusi dena XVII. mendetik aurrera) besterik ez dela argi izan;
3. Europak munduko gainerako herriak menderatu eta kolonizatu egin dituela jakin behar dugu;
4. europar eta filoeuropar zibilizazio kapitalistak (Estatu Batuek, Kanadak, Australiak, eta abarrek) mundua azpiratzen jarraitu duela jakin behar dugu;
5. euren garapen teknikoaz eta egituraren konplexutasunaz gaindi, herri eta giza kultura guztiek egin dituzten ekarpenak balioetsi behar ditugu, balio eta eskubide berberak dituzten herriak eta kulturak diren neurrian;
6. beste zibilizazio batzuen berri izan behar dugu eta, aldi berean, inguruan ditugun eta ezagutzen ez ditugun herri txikiak ezagutu behar ditugu, munduaren ezagutza norbere herria ezagutz hasten delako;

eta beste mundu baten alde egin behar dugu, eta beste mundu hori posible dela jakin, etorkizuneko historia idatzirik ez dagoelako.